koa izango dute araubide, bai eta laguntzak emateko urteko deialdiaren ebazpenean ezarritakoa ere. Agindu horren bidez, bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontsumitzaileen Antolakundeei diru-laguntzak ematea arautu zen.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Agindu hau indarrean sartzerakoan, indargabetuta geratuko da Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2003ko maiatzaren 8ko Agindua, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontsumitzaileen Antolakundeei diru-laguntzak ematea garatu zuena.

AZKEN XEDAPENAK

***Lehenengoa.–*** Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu, eta biharamunean jarriko da indarrean.

***Bigarrena.–*** Agindu honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan. Hil biko epea emango da, agindu hau argitaratu, eta hurrengo egunean zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2005eko martxoaren 9a.

Industria, Merkataritza eta Turismo sailburua,
ANA AGUIRRE ZURUTUZA.

gula la concesión de ayudas económicas destinadas a Organizaciones de Personas Consumidoras del País Vasco, se regirán por lo establecido en la misma, así como por lo establecido en la Resolución de la convocatoria anual al amparo de la cual fueron concedidas.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

A la entrada en vigor de la presente Orden quedará derogada la Orden de 8 de mayo de 2003, del Consejero de Industria, Comercio y Turismo, por la que se desarrolla la concesión de ayudas económicas destinadas a Organizaciones de Personas Consumidoras del País Vasco.

DISPOSICIONES FINALES

***Primera.–*** La presente Orden entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

***Segunda.–*** Contra la presente Orden podrá interponerse recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de publicación de la presente Orden.

En Vitoria-Gasteiz, a 9 de marzo de 2005.

La Consejera de Industria, Comercio y Turismo,
ANA AGUIRRE ZURUTUZA.

## ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

### 1300

51/2005 DEKRETUA, martxoaren 8koa, etxeko edo sexuagatiko indarkeriaren biktimak diren emakumeei argibideak eta arreta emateko zerbitzu bat ezartzea zuzeneko ekintza deklaratzen duena.

Euskal Herriko Autonomia Estatuaren abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoak 10.12 artikuluan ezartzen duenez, Euskal Autonomia Erkidegoak bakarreko eskumena du gizarte-laguntzan. Lurralde Historikoei buruzko Legeak, halaber, honela dio bere 7 c) artikuluko 1. puntuan: Lurralde Historikoei dagokie bakoitzaren lurraldearen barruan Autonomia Erkidego osorako erakundeen legeria betearaztea, Autonomia Erkidego osorako erakundeek zuzenean jardun badezakete ere. Eta, azkenik, Gizarte Zerbitzuen urriaren 18ko

## DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y ASUNTOS SOCIALES

### 1300

DECRETO 51/2005, de 8 de marzo, por el que se declara como acción directa la implantación de un Servicio de información y atención telefónica a mujeres víctimas de violencia doméstica o por razón de sexo.

Según señala el artículo 10.12 de la Ley Orgánica 3/1979 de 18 de diciembre, de Estatuto de Autonomía para el País Vasco, la Comunidad Autónoma Vasca tiene competencias exclusivas en materia de asistencia social. A su vez, la Ley de Territorios Históricos en su artículo 7 c) punto 1, dispone que corresponde a los Territorios Históricos la ejecución dentro de su territorio de la legislación de las Instituciones comunes en materia de asistencia social, sin perjuicio de la acción directa de las Instituciones Comunes del País Vasco. Final-

5/1996 Legeak ezartzen duenez, Eusko Jaurlaritzaren eskumenekoa da gizarte-zerbitzuen alorrean zuzeneko ekintza burutzea; hain zuzen ere, interes orokorrekoak direlako, Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde osoan batera garatu behar diren programak betearazteko eskumena.

Horiek horrela, erasoen biktimak diren emakumeek, gizarte zerbitzuen berariazko arretaren gai direnez gero, Euskal Autonomia Erkidego Osorako batera diseinatu eta kudeatu beharreko zerbitzu bat behar dute; horrela, emakume guztiei bertara iristeko baldintza berberak bermatu ahal izango zaie.

Horrela, bada, Gizarte-Zerbitzuei buruzko urriaren 18ko 5/1996 Legearen 1. eta 3. artikuluek eta Lehenengo Xedapen Gehigarriak, helburuen artean, gizarte-zerbitzuak sustatu eta zerbitzuok eraginkor jarduteko beharrezko diren baliabideen hornidura begiesten dute eta, nolanahi ere, premiarik larrien dutenei lehentasuna eman beharra. Zerbitzu berri honen bidez, beraz, egoera horiekiko arreta bideratzen da, hain zuzen ere desabantaila soziala edo arrisku-egoera gertatzen direnean eskuartu ahal izateko eta, horrela, egoera horietan dauden pertsonei argibideak eta entzunaldi bizia eman ahal izateko.

Ondorioz, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren proposamenez, Gizarte-Ongizateko Euskal Kontseiluak aldeko irizpena eman ondoren, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2005eko martxoaren 8an aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

***Artikulu bakarra.***– Gizarte-Zerbitzuei buruzko urriaren 18ko 5/1996 Legearen 9.2 artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, etxeko edo sexuagatiko indarkeriaren biktimak diren emakumeei argibideak eta arreta emateko zerbitzu bat ezartzea zuzeneko ekintza deklaratzen da.

AZKEN XEDAPENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean hartuko du indarra dekretu honek.

Vitoria-Gasteizen, 2005eko martxoaren 8an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburua,
JAVIER MADRAZO LAVÍN.

mente, la Ley 5/1996, de 18 de octubre, de Servicios Sociales, establece que es competencia del Gobierno Vasco la acción directa en materia de servicios sociales, entendiéndose por tal la competencia de ejecución respecto de aquellos programas que por su interés general tengan que ser prestados con carácter unitario en todo el territorio del País Vasco.

En este orden de cosas, las mujeres víctimas de agresiones, objeto de atención específica de los servicios sociales, requieren de un servicio que debe ser diseñado y gestionado de manera unificada para toda la Comunidad Autónoma del País Vasco de forma que permita garantizar el acceso al mismo en condiciones de igualdad.

Así, los artículo 1, 3 y la Disposición Adicional Primera de la Ley 5/1996, de 18 de octubre, de Servicios Sociales, contemplan entre sus objetivos la provisión de los recursos necesarios que permitan la promoción y eficaz funcionamiento de los servicios sociales priorizando en cualquier caso la cobertura de las necesidades más urgentes. Esta cobertura, se dirige con la constitución de este servicio, a intervenir en situaciones de desventaja social o riesgo proporcionando información y escucha activa a las personas que se encuentran en esta situación.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, de acuerdo con el informe favorable del Consejo Vasco de Bienestar Social, y previa deliberación y aprobación por el Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 8 de marzo de 2005,

DISPONGO:

***Artículo único.***– A los efectos previstos en el artículo 9.2 de la Ley 5/1996, de 18 de octubre, de Servicios Sociales, se declara como acción directa la implantación de un Servicio de información y atención telefónica a mujeres víctimas de violencia doméstica o por razón de sexo.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 8 de marzo de 2005.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales,
JAVIER MADRAZO LAVÍN.